

3. DEIALDIA

EUSKO IKASKUNTZAREN IKERKETA SUSTATZEKO ETA BABESTEKO PROGRAMA

Etorkizuneko ikerketa-gaien sustapena bultzatzeko eta azterketa-, prospektiba- eta ikerketa-lan horien hasiera bultzatzeko, **Eusko Ikaskuntzak, Euskal Herriko 9 unibertsitateekin lankidetzan** (EHU, Deustu, MU, NUP, UNAV, UNED, UPPA, UBM eta Euneiz), **ikerketa sustatzeko eta laguntzeko programaren 3. deialdia** abiarazi du. Deialdiaren helburua da etorkizuneko ikerketa-gaien hasierako azterketa-lana sustatzea, lehen hilabeteetako ikerketa-lana bultzatzea eta etorkizuneko ikerketa-ildoen "artearen egoera"-ren lanketa erraztea.

OINARRIAK

1. DEIALDIAREN XEDEA

Etorkizuneko ikerketa-ildoak sustatzeko, Eusko Ikaskuntzak **3 laguntza /beka programa** (aurrerantzean, **LAGUNTZA**) eskaintzen ditu 2026-2027 ikasturterako, garatu beharreko ikerketa- edo azterlanak bultzatzeko.

2. NORENTZAT

Eusko Ikaskuntzaren ikerketa sustatzeko eta laguntzeko programa **masterandoei** zuzenduta dago bereziki, baina doktoregaiei eta graduetak 4. mailako eta gradu bikoitzetako 5. mailako ikasleei ere irekita egongo da (aurrerantzean, programaren laguntza jasotako guztiak, bakarka edo taldean, **ONURADUNA** gisa izendatuko dira).

Ikerketa edo azter-lana ikasle bakar batek nahiz ikasle-talde batek aurkeztu ahal izango du, beti ere, laguntza bakarra izanik talde osoarentzat.

3. IRAUPENA

Programek **6 hilabeteko** iraupena izango dute, urtariletik ekainera (12 hilabetera arte luzatu daitekeelarik, programaren onuradunak hala eskatuz gero).

4. IKERKETA GAIAK

Eusko Ikaskuntzak honako arlo eta lan-ildoei buruzko **ikerketa edo azterlanak** hobetsiko ditu:

- Adimen artifiziala, humanismoa eta giza zientzien etorkizuna.
- Belaunaldien arteko elkartasuna Euskal Herrian.
- Eleaniztasuna.
- Espiritualtasun, sinesmen eta balio berriak.
- Euskal Herriko gazteen osasun mentala eta ongizate psikologikoa.
- Garapen sozioekonomikoa.
- Identitatea eta aniztasuna Euskal Herrian.
- Lurraldea, migrazioa eta errotzea.
- Parte-hartzea, demokrazia eta konpromiso soziala.
- Pertsonen osasuna eta ongizatea.
- Ondarea.
- Gai librea.

5. HIZKUNTZA

Ikerketak edo azterketa-lanak **euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez** egin ahal izango dira.

6. LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Eusko Ikaskuntzak 2026-2027 ikasturtean **3 laguntza** eskainiko ditu, bai norbanako bezala aurkeztuta zein taldeari bere osotasunean, **2.000 euro** garbikoa bakoitza.

Eusko Ikaskuntzak 1.000 euro garbi ordainduko dizkie laguntzaren onuradun bakoitzari, taldeak onuradun bakartzat hartuta, 2026ko abenduan, eta gainerako 1.000 euroak lana entregatu eta baloratu ondoren (2027ko ekainean edo lana entregatzeko ezarritako egunean).

Egindako lana esleipenean zehaztutako epean aurkezten ez bada edo eskatutako kalitate-maila betetzen ez duela uste bada, bigarren ordainketa ez da egingo eta lehenengo ordainketa onuradunak itzuli egin beharko du.

Eusko Ikaskuntzak zuzenean ordainduko dio ikasleari edo taldeko kideei esleipenean ezarritako zenbatekoa, egoki iritzitako bitartekoen bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko zerga-betebeharrei dagokienez, jasotako laguntzak Pertsona Fisikoaren Errentaren Gainerako Zergarekiko salbuetsita egongo dira inolako atxikipenik jasan gabe. Era berean, Gizarte Segurantzari dagokionez, laguntza hauek ez dute inolako kotizatze beharrik suposatzen.

7. HAUTAGAITZAK AURKEZTEA

Eusko Ikaskuntzaren laguntzaren onuradun izan nahi duten pertsonak ondoko agiri guzti hauek aurkeztu beharko dituzte **eskabidea bideratzeko**:

- [Eskaera-inprimakia](#) beteta.
- Hautagai(ar)en curriculum vitae eta NANaren kopia, komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus helbidera bidalita.

Hautagaitzak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan zehazten diren baldintzak berariaz eta formalki onartzea.

8. BETEBEHARRAK

Eusko Ikaskuntzaren laguntza bateragarria da beste erakunde batzuetatik jasotako laguntzekin. Hala ere, hautagaiak edo hautagaiek zehaztu egin beharko dute zenbateko laguntza eta zein erakunderengandik jasotzen duten, edota erantzunaren zain dagoen.

Halaber, Eusko Ikaskuntzaren laguntzan onuradun izandako lanak bestelako lehiaketetan ere aurkeztu ahal izango dira.

9. EPEAK

Eskabideak aurkezteko epea hau izango da: **2026ko irailaren 7tik 2026ko azaroaren 1era**.

10. EPAIMAHAIA ETA HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

Hautagaiak honako erakunde hauetako ordezkariak osatutako epaimahaiak baloratuko ditu:

- Eusko Ikaskuntza
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- EUNEIZ Unibertsitatea
- Deustuko Unibertsitatea
- Nafarroako Unibertsitatea
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Mondragon Unibertsitatea
- UNED, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala
- Université Bordeaux Montaigne
- Paue eta Aturri inguruko herrialdeetako Unibertsitatea

Epaimahaiak **irizpide** hauek hartuko ditu kontuan:

- Aukeratutako ikerketa-gaiaren interesa eta gaurkotasuna.

- Proposatutako iker- edo azter-metodologia.
- Hautatutako gaiak eta metodologiak etorkizunean ikerketa-ildo nagusi izateko eskaintzen duten aukera eta irismena.
- Lana egiteko erabiliko den hizkuntza euskara izatea hobetsiko da.
- Hautagaiak hautatzerakoan lurralde-, genero- eta hizkuntza-oreka kontuan hartuko da.

11. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Eusko Ikaskuntzak, beranduenez, **2026ko abenduan** jakinaraziko du epaimahaiaren erabakia. Jakinarazpenean, laguntzaren onuradunen izen-abizenak, aukeratutako ikerketa- edo ikasketa-lanen izenburua eta horiek gauzatzeko epeak zehaztuko dira.

Jasotako proposamenek ez badute eskatutako interes edo kalitate-mailarik, epaimahaiak programaren bat edo batzuk esleitu gabe utzi ahal izango ditu.

12. PROGRAMAREN BESTE EKARPEN BATZUK

Laguntzaren onuradunek, unibertsitatean izan dezaketen tutoreaz gain, Eusko Ikaskuntzako **aditu baten laguntza** ere izan dezakete, nahi izanez gero.

Era berean, laguntzaren onuradunen ikerketa-lanak edo azterlanak **Eusko Ikaskuntzaren sozializazio-ekitaldietan** integratu ahal izango dira: jardunaldietan, mintegietan, hitzaldi-zikloetan, kongresuetan, RIEV dibulgazio-aldizkarian... edo Eusko Ikaskuntzarekin adosten diren eta bi aldeen onespina duten bestelako euskarrietan.